



Maria Bocos-en 15 metroko etxea

Maria Bocos lasarteoriarraren lana saritu du aurtengo Hasiberrien Lehiaketak. Arkitektura lan bat aurkeztu zuen, 15 metro karratuko etxebizitza baten proiektua eta maketa hain zuzen ere eta Koldo Mitxelena kulturen ikusi daiteke maiztaren 14a bitartean 35 urtetik beherakoen arteko lehiaketa ezagun honetan aurten parte hartu duten beste 21 artisten lanekin batera.

/4-5 ORRIALDEAK

Natxo Izeta aurkeztu zuen H1!-k

Alderdiak Lasarte-Orian izango dituen lehentasunak azaldu zituen

Hamaikabatek bere alkatetzarako hautagaia, Natxo Izeta aurkeztu zuen ostiralean.

Ekitaldi honetan, besteak beste, Joxean Rekondo Batzar Nagusietarako Donostialdeko zerrrendaburuaren eta Pello Gonzalez, Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaiaren babesa izan zuen.

Ardura eta esperientzia

Jose Antonio Rekondo izan zen H1! alderdiko hautagaia aurkeztu zuena. Bere hitzetan, Natxo Izetak herriaren zuzendaritza "arduraz eta zintotasunez" egingo zuela azpimarratu zuen.

Era berean mintzo zen Pello Gonzalez ere, "politika arloan, eskarmentuko pertsona da Natxo eta Lasarte-Oriako herriaren alde lan egin duena".

Eta "Natxok alderdiak aur-



H1!-ko Pello Gonzalez, Natxo Izeta eta Joxean Rekondo aurkezpenean.

keztu nahi dituen baloreak irudikatzen ditu," gaineratu zuen H1! alderdiko diputatu nagusirako hautagaia.

Honetaz gain, H1! alderdia beste zerbizatzea helburu duela azpimarratu zuen

eta kudeaketari dagokionez, "guztien ondasuna, bakoitzarena baino hobeago zaindu behar da," ere aipatu zuen.

Herrigintza

Azkenik, Natxo Izetak bereziki

aipatu nahi izan zuen zergatik ikusten duen Lasarte-Orian H1! alderdiaren presentzia beharrezkoa.

Alde batetik hautagaiak adierazi zuen bezala, "herrigintza lan egitera gatz".

Honela, eguneroko bizitzan sortzen diren arazoak konpontzea izango da alderdiaren lehentasuna, "Lasarte-Oria hobetzeko egin behar diren gauzak".

Bestetik, azkeneko aldian Lasarte-Oriari buruzko berrien harira, udal gestioan garrantzitsua bultzatzeko apustu argia egingo duela adierazi zuen.

Hala ere, argitu nahi izan zuen, dagokien erantzukizunak eskatzen zorrotzak izan arren, "H1! ekoak ez gatzogurra ematera, jarrera baikorra izango dugu". Izan ere, herriak dituen erronkei aurre egiteko elkarlana indartzeko asmoarekin dator alderdia. •

Amaraun-en jaialdi bikaina

Lasarte-Oriako neska mutilek ederki asko pasa zuten larunbatean goiz eta arratsaldean Michelingo frontoian burutu zen Amaraun jaialdian. Egun osoan, puzgarri, tailer ezberdin eta ludotekako jokoekin, eguerdian bazkideen bazkarian eta batez ere arratsaldeko txokomerienda, kalejira, dantza eta antzerkian. Aurten, festako gaia itsas herria eta itsasoko animaliak izanik emanaldi berezi eta bikaina eskaini zuten jaialdiari amaiera emateko Ane Monna, Oskola eta Karramarroik Amaraun klubeko lagunentzat. - . •



Giro bikaina izan zen larunbatean egun osoan Michelingo frontoian egin zen Amaraun jaialdian.

KIROLA /2

Mendi Bizikleta zeharkaldian 336 txirrindularik parte hartu zuen

UDALA /3

Etxebizitzaren krisiari aurre egiteko hitzarmena sinatuko du Udalak

POLITIKA /8

17 urteko kartzela zigorra ezarri diote Mikel Eskisabeli



Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Inguruko erakusketarik onena!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Betiko zerbitzua
gure
aholkularitza
onenarekin

Euskal Herri osotik etorritako 336 kirolarik, gehienak Lasarte-Oria eta ingurukoak, hartu zuten parte herriko III mendi bizikleta trabe-sian. Saiatuz taldeak eta MKL dendak oso ondo antolatu zuten proba, eta eguraldiak ere

lagundu zuen ez baituen eguerdira arte euririk egin. Goizeko 9etan aterata eta 11etan hasi ziren lehen txirrindulariak polikiroldegi ondo-ko frontoira iristen eta eguerdirako txirrindulariz beteta zen frontoia. Bertan sagardo

botila eta kamiseta bat jaso zuten parte har-tzeagatik eta ederki indarberritu ziren: edari, kafe, salda, fruta, pintxo hotz, txistorra, patata tortila, okela egosi,... aukera zabala izan zuten horretarako.

Mendi bizikleta zeharkaldi jendetsua

■ 336 lagunek hartu zuten parte igandeko BTT ibilaldian ■ Andatza ala Buruntzara joan ziren

Loidi Barrengo frontoira pixkanaka iritsi ziren goizeko 11:00k eta 12:00k bitartean Lasarte-Oriako III. BTT trabe-sian parte hartu zuten txirrindulariak, lokatzaz zipriztinduak eta nekatuak, Andatzatik 28 kilometroko ibilbide motza edota Buruntzatik 38 kilometroko luzea egin eta gero.

Bi puntu hauetan fruta eta edari postuak jarri zituzten antolatzaileek, bidegurutze guztietan ere egon ziren inor ez galtzeko eta aterata ziren txirrindulari guztiak iritsi ziren onik helmugara. Ez zen erorketa aipagarrikerik izan eta DYAKoek urratu txiki batzuk sendatu beste lanik ez zuten izan.

Eguraldi bikaina

Eguraldia ere bikaina izan zuten txirrindulariek mendi itzulia egiteko, euria egin bako asko lokatu eta zailduko baitzen ibilbidea.

Aipagarria da oso ondo antolatu zutela proba, eta eguerdirako bizikletak uzteko jarritako tokiak txirrituz bete zirela. Harrera oso ona izan du aurten ere probak, guztira 336 lagunek eman zuten itzulia eta ondoren giro ederrean dastatu zituzten antolatzaileek prestatutako jaki bikainak. Mahai bete pintxo jarri zuten, hotz eta beroak, salda, kafea eta edariak.

Sagardo botila bat eta kamiseta jaso zituzten opari eta 336 parte hartzaileen artean txirrindularitzako materiala zozketatu zen, kasko, bonba, adar, pote, maillo, poltsa eta abar. •



Loidi Barrengo frontoia txirrindulari eta bizikletez bete zen eguerdirako. Andatzatik itzulia eginda lehenengoak 11:00ak aldera iritsi ziren. Geroago, Buruntzara ere joan zirenak



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Etxebizitzaren krisiari aurre egiteko hitzarmena sinatuko da

179 etxebizitza berri eta 25 BOE sortu nahi dituzte

Etxebizitzaren merkaturako krisi larriak Goiegi Ibarra, Zabaleta berri eta Zatarraingo poligonoen bidegarritasuna ziurtatzen duen formula bat bilatzea ekarri du, izan ere, etxebizitza adosatuek ez dute dagoeneko merkaturik eta poligonoen aurrerabidea oztopatzen dute.

Hori dela eta, alkatetzak eta Nasipa S.L., Zabaleta Berri S.L. eta Construcciones Aburruza S.A. promotoreek hitzarmen bat sinatuko dute etxebizitza horien tipologia eta kopurua aldatzeko.

Era honetara, eraikuntzen bolumena eta eraikigarritasuna aldatu gabe promozio horietako etxebizitza libreak itundutakoak izatera pasako dira. Hauek, etxebizitza librekoak baino merkeagoak izango dira, baina Babes ofizialekoak baino garestiagoak.

Eta Lasarte-Oriako hiritarrek hiru promozio hauetan sortuko diren itunduko 179 etxebizitza berri eta 25 BOE berri eskuratzeko aukera izango dute.

Baldintzak

Lasarte-Oriako Udalak zenbait baldintza jarri ditu, besteak beste, gehieneko itundutako prezioa, erroldako baldintzak, tanteo-eskubidea eta hobe-



Arg.: Josu Agirretxe

Hala nola, Goiegi Ibarrean aurreikusitako etxebizitza adosatuei eragingo die akordioak.

kuntza garrantzitsuak urbanizazioetan, Plan Partzialaren aldaketa aurrera eramateko.

Enpresek, bestalde, promozioak datozen lau urteetan amaitzeko konpromisoa hartuko dute.

Honetaz gain, enpresa sustatzaileek etxebizitza hauetako bat eskuratu nahi duten pertsonak izena emateko zerrendak zabalduko dituzte, eta zozketa publikoa Udalak eramango du aurrera.

Zozketa ostean, bost urte herrian erroldatuak egon direnek izango dute lehentasuna, etxebizitza izaterakoan. Etxe-

bizitza guztiak sei hilabeteetan banatzen ez badira, kopuru hori bi urtera murriztuko da eta beste sei hilabete igarotzean, erroldatutako herritar guztiak izango dute lehentasuna.

"Esppekulazioa ekiditeko helburuarekin, zortzi urtetan Udalak eta sustatzaileek ustapen itunduko etxebizitzaren prezioan, modularen prezioaren eguneraketekin tanteo-eskubidea izango dugula ezarri dugu. Modu horretan, jendeak etxebizitza horiek merkatu librean saltzeko ideiarekin erostea eragotziko dugu", azaldu du Zaballosek. •



Oreindik Jalgin.- Lasarte-Oriako Jokin Telleria baterajolearen Oreindik taldeak eta Elgoibartik etorri zen Andra-kan boskoteak kontzertu bikaina eskaini zuten larunbat gauean Jalgi tabernan. Andra-kan taldeak hasi zuen kontzertua, eta piskanaka giroa berotzen joan zen. Euskara eta ingelesa tartekatuta zituzten euren abestietan. Jende ugari bildu zen Jalgin eta oso ondo pasa zuten bi taldeekin. Oreindik-ek zenbait bertsio ere eskaini zituen, hau da, bere abestietaz gain besteak beste Itoz taldearen abestiak jo zituen. •



Arg.: I.I.

GERTAKIZUNA

Auto bat erre zen Hipodromoko zubian

Apirilaren 2an, larunbata, goizeko 5:30ak aldera, Hipodromo etorbideko bizilagunak kaleko sirena eta mugimenduagatik esnatu ziren. Kalera irten eta Hipodromorako zubian kotxe bat erretzen ari zela ikusi zuten.

Donostiako Udaltzainekin harremanetan jarri da TXINTXARRI aldizkaria baina ez dute sutearen arrazoirik eman.

Hobela, goian ikusi daiteke, bizilagun batek aldizkaria bidalitako argazkia. •

OPORRAK BAKEAN

Familia bat falta Saharar haur bat hartzeko

Saharar Herriari elkartasuna adierazten dioten elkarteak Euskadiko Frente Polisarioaren ordezkartzaren eta Udalen laguntzaz, beste urte batez, Oporrak bakean programa jarri dute martxan.

Honen bitartez, uztaila eta abuztuaren, Euskadiko herrietan 410 neska eta mutil saharar egongo dira harrera familietan.

Lasarte-Oriaren kasuan, Saharar Herriaren Lagunen eta Udalaren elkarlanari esker, 4 haurrek esperientzia errepikatuko dute eta beste hirurentzat lehenengo aldia izango da.

Guztira 7 adin txikiko dira eta elkarte oraingoz sei harrera familiarean dago harremanetan. Gauzak honela, harrera familia bat behar dute haur berrietako bat hartzeko.

Programari buruzko informazio gehiago izateko Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunak elkartearekin (660775090 / 678563977) jarri edo Villa Mirentxun dagoen Gizarte Zerbitzuetara hurbildu daitezke harremanetan interesatuak. •



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

AISIA

Atsokabarreko parkeak itxituta berria du

Atsokabarreko jokoek itxitura berria dute haurren segurtasunerako. Aisialdirako zonaldea da eta zakur asko ibiltzen dira inguruan. Horregatik, alkatetzak erabaki du jokoen zonaldea mugatu eta maskotei itxia izatea.

Jesus Zaballos alkateak azaldu duen moduan, "herritarrengandik zenbait eskaera jaso ditugu segurtasun perimetro bat jartzeko, askotan haurrak jolastan egon eta zakurrak gerturatzan direla azpimarratuz".

Itxituraz gain, kartelak jarri dira zakurrak sartzeko debekua adieraziz, eta parkeko hondarra aldatu da. Hartutako neurriekin haurrak espazio horretan lasaitasunez egongo dira. •

UDALA

Udalari iradokizunak egiteko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogorarazten da. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea. •

Maria Bocos Barne-diseinatzailea

“Proiektu utopikoa da 15m²ko etxea”

■ Maria Bocos lasarteoriarrak Diputazioak eta Kutxak antolatzen duten XLIV Artista Hasiberrien Lehiaketan saria eskuratu du ■ 15m²ko etxebizitza antolatua da proposamena

Martxoaren 17an Diputazioak eta Kutxak antolatzen duten eta Gipuzkoako artisten proiektzio ahalbidetza helburu duen XLIV. Hasiberrien Lehiaketako sarituen artean Maria Bocos lasarteoriarraren lana zegoela eman zen jakitera. Margoa eta eskultura nagusi ziren garaiak albo batera utzi ditu lehiaketak eta orain arkitekturek ere bere lekua hartu du. 35 urteko beheko-entzako lehiaketa honetan aurten parte hartu duten 21 artisten obrak daude erakusgai Koldo Mitxelena kulturegunean maiatzaren 14a bitartean. Bocos-en “Le Communaute” lana ikusteko aukera egongo da bertan.

Gure gizartea aldatzeko prozesu sakon batean dabiltzen arren, badirudi etxebizitzaren arloan ez dela hainbeste aldaketarik eta askoren jomuga izateari eusten diotela. Gizarte eraldaketa honek etxebizitzaren aldatzea eskatzen du, edo behintzat hori da Maria Bocos herriarrak uste duena. 15m²ko etxebizitza da luzatu digun proposamena. Txikia badirudi ere, Artista Berrien XLIV. lehiaketan saria jaso du eta bere proiektuaz hitz egiteko berarekin bildu gara.

Nolatan aurkeztu zinen lehiaketa honetara?
Lau urte pasa ditut Bartzelonan ikasten eta uztailean bueltatu nintzen. Nire burua ezagutzera eman behar nuen, nire ahizpak lehiaketa honen berri izan zuen eta parte hartzeko esan zidan. Hasieran ez nuen oso argi, baina orain kontent nago.

Zer eskatzen da lehiaketa honetan parte hartzeko?
Obra bat, eta horregatik hasieran aurkezteko dudatan egon nintzen, ni diseinu mundutik narretarako. Baina obra bat eskatzen da besterik gabe.

Eta zuk zer aurkeztu zenuen?
15m²ko etxebizitza baten plano.

Nondik etorri zitzaizun ideia?
Bartzelonan karrera amaitzeko proiektua egiterakoan, galdera bati jarraiki planteatu behar duzu. Galdera *Zer izan nahi duzu handitan?* zen. Hortik aurrera krisi garaian gaudenez eta guzti horren ondorioa espekulazio higiezi- n izan denez, etxebizitza gai ona iruditzen zitzaidan. Nere ustez etxebizitzaren gaia betidanik gizakiaren kezka izan da, hor bizi behar garelako.

Pentsatzen hasi nintzen,

historian zehar gizakia oso nomada, mugikorra izan da eta horri helduta etxebizitza txiki bat, modularra sortzea pentsatu nuen. Oinarriko gauzak izango litzuten etxebizitza baten neurri minimoak bilatzen hasi nintzen, frogatu behar ziren, garatu eta hemen dugu emaitza.

Azkar lortu al zenuen ideia garatea?
Hasieran nire jomuga etxe mugikorra, sostengarria, rulotzeko bat egitea zen, guzti honen jendearan txipa aldatzeko. Egun bizitza asko aldatu bada ere, jendeak oraindik 90m², eta hiru logelako etxebizitza nahi du. Gizartea azkar aldatzen ari bada ere, etxebizitzaren mundua mantso doa. Nik uste beste modu batean bizitzearen ikasi behar dugula, benetan beharrezkoak diren metroetan.

Nondik ateratzen da 15m² bizitzeko nahiko direla?
Ideia sortu eta gero garapenerako frogak egin nituen. Eskultura antzeko bat egin nuen, espazio guztiak modulokoa beteta zituen. Orduan modulu horiek kentzen joan nintzen, eskultura zuluatuz. Baina ez nion inolako zentsurik aurkitu.

Orduan Le Corbusiere Le Moduleuren arau matematikoak, armoniosak kontuan hartuta, altuera eta neurri egokiak ateratu nuen.

Eta hortik neurri hauek?
15m²ko etxebizitza bat neurri minimoekin egina bada ere, eroso da. Sukaldea, komunak, logela eta erlazatzeko tokia du. Lekua ondo aprobetxatu behar da eta horretarako altuerekin jokatu nuen. Bolumenari esker, espazio irekia lortu ditut eta gauzak gordetzeko leku askorekin. Eserlekuak adibidez, gauzak



15m²ko etxebizitza txiki hau izango luke. Sukaldea, komunak, egongela, ohea... ez zaio detallarik falta.

almazentatzeko eta eskailera moduan ere funtzionatzen dute. Guztia aprobetxagarria da. Leku bat gauza ezberdinetarako erabiliz. Espazioari jokia eman nahi diot.

15m² ez al da espazio minimoa?

Proiektu bat da, utopikoa. Guzti honen etxebizitzentzat beste aukera bat dagoela azaleratu nahi dut. Berez, gizaki guztiok etxebizitza bat edukitzeko eskubidea dugu. Proiektu honen bidez ideia bat luzatu nahi dut, jendea etxebizitza hain nahikoa duela, eta ondoren beharrezkoak diren metroetan etxebizitza dela.

Le Communaute jarri diozu izena, nondik dator hori?
Le Corbusierek sortutako legea La Communaute zen. Ni hitz joko bat hartu dut Le Corbusierek inguratu eta

Communaute legearengatik. Bera izan zen nire proiektuaren inspirazioa.



Zenbat denbora pasa duzu proiektu honen osaketan?
Sei hilabetetan garatu dut gutxi gorabehera guztia. Lehenengo ideia pentsatu eta ondoren hau garatu. Hasieratik garbi nuen, baina garatzeko momentuan izan nituen arazo gehien, Le Corbusierek arauak erabiltzen arauak erabiltzeko modua ibili nintzen. Eta hortik aurrera dena zuzen eta bideratua joan zen. Baina nahiz luze jo zuten kontent nago emaitzarekin, proiektuak logika du eta justifikatua dago.

Le Communaute sortzeko inspirazioa

“Asper-asper eginda gaude ehun belaunaldieren hats kirastuta daren etxeetan bizi-irauten. Gaurtik aurrera ez dugu ez jan, ez lo, ez amerik egongo gure garunaren irudi eta antzera diseinatu etxeetan ez bada”. Vicenzo Fani, 1920.
Garai asaldagarriak dira gaur egun bizi ditugunak, iritsi zaigu gogoeta egiteko eta hobetzen saiatzeko garaia, etorkizuneko ikuspegiarekin, gero hobeto baten xedetan gaurko errore eta akatsak zuzenduz.
Aspaldiko hamarkadetan diseinatu zituzten espazioetan bizi gara, nahiz eta gure gizartea aldatzen den zitu bizian. Etxebizitzak beharkizun sozialei erantzun beharko lieke, ezta?
Familia-tipologiak aldatu egin dira eta ez dute zer ikusirik, gero eta gutxiago, bi seme-alabak duen senar-emazte osatutako familia nuklearraren ideia konbentzionalarekin.”

Denborarekin arkitekturen hitz egin nuen, proiektua erakutsi eta etxebizitza modulua asko gustatu zitzaion, ondo pentsatua zegoela esan zidan, xehetasun txikiak kontuan edukita. Horrek ere poztasunez beti zidan.

Proiektua ondo dago, baina etorkizuneko bideragarri ikusten duzu?
Hemen Euskal Herriaren adibidez, ez. Baina hiri handietan aldiz bai. Nik proiektuaren Ullia mendian kokatu nuen, mendian eta aipatutako arkitekturekin bildu nintzenen esan zidan bertan ez zeukala zentsu handirik jartzeara. Bertan toki zabala dago, baina dirua joan egiten da. Honetaz gain, nire burua ezagutzera emateko aukera zabaldu dit.

Obra saria izan da zurea, zer eman dizu?
2.000 euroko sari ordaina eman didate, baina dirua joan egiten da. Honetaz gain, nire burua ezagutzera emateko aukera zabaldu dit. Lehiaketako irabazleei esan digute gure proiektua beste herrialde batzuetan ezagutzera emateko bidaia egingo dugula. Sevillakoa zen lehiaketa honetan epai-mahaikide bat eta bertara joango garaela esan ziguten. Besteak beste, Madrilera, Casa Encendida delakora eta Leonera joateko asmoa dago, baina konfirmatu gabe dago oraindik.

Oso aukera ona da Espainian zehar gure proiektua aurkezteko aukera eskaintzea. Saria bat baino gehiago da, kurrikuluma betetzen joateko aukera ematen dizu. Nik dirua baino horrelako gauzak nahigo ditut sarritan.

Altueran jarriko al ziren?
Printzipioz ez. Ez dut horrela enfokatu proiektua, berez moduluko jartzeko pentsatuta dago. Goialdean lehoiak dituzte argia sartzeko. Gainera hasiera batean, nire ideiak moduloko jarri eta inguruan zonalde komun bat egitea zen, baina arkitekturekin hitz egin ondoren aldatu egin zen.

Kontent orduan?
Oso kontent nago saria jasotzeagatik, gainera ez nuen esperdo. Eta honetaz gainera Koldo Mitxelena nik sortutako proiektu bat ikusgai egotea garrantzitsua da niretzat.

Zer aurkituko duzu bertan?
Nire proiektua azaltzen duten gabeletan hamar A-5 ageri diren Panel batzuk. Eta gero Le Communautearen maketa bat dago 1:10 eskalan. Nire ideia sarritu dute eta orain nahi duen orok ikusteko aukera dauka. Maiatzaren 14a bitartean ikusteko aukera dago.

Oso aukera ona izango litzateke proiektua bideragarria den edo ez ikusteko, bertan bizitzeko aukera dagoen ala ez ikusteko.

Etxe txikia izanik, kostea ere txikia izango litzateke?
Ez dut hori kalkulatu, baina nik uste dirua izango zela. Proiektua sortu nuenetik esan nuen prototipoa egitea gustatuko zitzaizkida, baina diru asko suposatzen du. Eta badirudi lehiaketa honek atek ireki ahal ditala gauzatzeko.


Obra saria izan da zurea, zer eman dizu?
2.000 euroko sari ordaina eman didate, baina dirua joan egiten da. Honetaz gain, nire burua ezagutzera emateko aukera zabaldu dit. Lehiaketako irabazleei esan digute gure proiektua beste herrialde batzuetan ezagutzera emateko bidaia egingo dugula. Sevillakoa zen lehiaketa honetan epai-mahaikide bat eta bertara joango garaela esan ziguten. Besteak beste, Madrilera, Casa Encendida delakora eta Leonera joateko asmoa dago, baina konfirmatu gabe dago oraindik.

Oso aukera ona da Espainian zehar gure proiektua aurkezteko aukera eskaintzea. Saria bat baino gehiago da, kurrikuluma betetzen joateko aukera ematen dizu. Nik dirua baino horrelako gauzak nahigo ditut sarritan.

Altueran jarriko al ziren?
Printzipioz ez. Ez dut horrela enfokatu proiektua, berez moduluko jartzeko pentsatuta dago. Goialdean lehoiak dituzte argia sartzeko. Gainera hasiera batean, nire ideiak moduloko jarri eta inguruan zonalde komun bat egitea zen, baina arkitekturekin hitz egin ondoren aldatu egin zen.

Kontent orduan?
Oso kontent nago saria jasotzeagatik, gainera ez nuen esperdo. Eta honetaz gainera Koldo Mitxelena nik sortutako proiektu bat ikusgai egotea garrantzitsua da niretzat.

Zer aurkituko duzu bertan?
Nire proiektua azaltzen duten gabeletan hamar A-5 ageri diren Panel batzuk. Eta gero Le Communautearen maketa bat dago 1:10 eskalan. Nire ideia sarritu dute eta orain nahi duen orok ikusteko aukera dauka. Maiatzaren 14a bitartean ikusteko aukera dago.



Le Communaute kanpotek itxura hau izango luke, behean Maria Bocosk bolumenekin egin duen jokia ikusten da.

Lehenengo lan garrantzitsuan saritua, nola ikusten duzu etorkizuna?

Egia esan ez dut oso garbi ikusten. Lehiaketak ondo daude nire burua ondo ikusteko. Nire proiektuak asko gustatzen zaizkit, baina ez momentuz ez dute iterearik eman. Etorkizuna ez dut argi ikusten bizi dugun egoeraren ondorioz, krisiagatik, baina ez nire buruagatik. Hala ere, badakit sortzen jarraitzen behar dudala, lanean eta buruari eragiten.

Gustukoa duzun beste proiektu bat alpatzerik?
Casa Huerto, izenekoa. Beste etxe minimo-minimoa da. Baratzak, egongela, logela, komunak eta sukaldea du. Hau ere, eskolako proiektua izan zen, eta irakasleei asko gustatu zitzaion. Haren prototipoa egiteko daukat oraindik, ikasketak amaitu nituenen esan zidaten patioan egingo nuela. Itoixten nago, berez hilabete honetan zehar Bartzelonara joan beharko nuke hau egitera.

Proiektu hau Madrilgo beste lehiaketa batetan aurkeztu dut, ea zer ateratzen den.

Nondik bideratu nahi duzu zure bizitza profesionala?
New Yorken bazegoen artista bat eztebixitza minimoa diseinatu eta egiten zituena, bere lana asko gustatzen zait eta nire lana hortik bideratzea ez legoke gaizki.

Arkitekturen japoniarra ere asko gustatzen zait, espazio minimoa ondo aprobetxatzen baitituzte. Barne-diseinatzen munduan, etxebizitza da sustukoan dudana esparrua. Neri etxebizitza txikien barne diseinuan lan egitea gustatuko litzaidake. Honetaz gain, grafikoak, arte mundua eta proiektu kontzeptualak ere asko gustatzen zaiz-



egon daitezke esparru bat beste baina gehiago gogoko dudana, baina ez dut nire bizitza profesionala itxi nahi.

Azken finean nire bizitzak bideratuko du nire bizitza profesio-

nalera. Ez dakit zein lan aterako zaizkidan baina guztiak irekita egon nahi dut. Arte eta diseinu munduarekin zerikusia duen oron ikusten dut nire burua. •

b0 desing

Bere proiektua ezagutzera emateko b0 desing enpresa sortu berri du Maria Bocos. Bere proiektuak b0desing.wordpress.com blegean ikusteko aukera dago, eta berarekin kontaktuan jarri nahi duenak mariabocos@gmail.com-en egin dezake. •

Konponbidea eskatu du Pello Eskisabelek

■ Parisko auzitegiak 17 urteko espetxe zigorra jarri dio astean ■ Epaia jaso aurretik prozesu demokratikoaren alde mintzatu zen ■ Espainia eta Frantziari demokratak izateko eskatu zien

Pello Eskisabel lasarteoriarrari hamazazpi urteko espetxe zigorra jarri dio Parisko Auzitegiak ETAko zuzendaritzako kide izateagatik. Asteartean, epaileak erabakiaren berri eman aurretik, hitzegiteko aukera baliatu zuen herriari hitza emateko eskatzeko: "prozesu demokratiko horrek eramango gaitu askatasunean eta justizian oinarritutako bakera". Bere ustez, Espainia eta Frantziak errepresioa utzi eta konponbide demokratikoaren aldeko pausua eman beharko lituzkete, demokrazia mintzatu baino, demokrata gisa jardun.

JON ALTUNA

Pello Eskisabelek asteartean epaile frantsesaren ahotik 17 urteko kartzela zigorra jaso aurretik hitza hartu eta salatu zuen Espainia eta Frantziak irtenbide politikoari ezetz esan eta eskal gizaratearen eskaerari errepresioa sakontzearekin erantzun diotela. "Atxiloketak, espetxe-ratzeak, estradizioak, deportazioak, guda zikina, tortura, alderdi politikoak debekatzeta... eguneroko ogia dira. Hala ere, inoiz ez da berandu duegi izango Euskal herriarekiko jarraera alda dezaten. Ez da nahikoa "demokrazia" hitzaz ahoa betetzea, demokrata gisa aritzea beharrezkoa da".

Eskisabel Lasarte-Oriako presoak indartsu aldarrikatu zuen "euskal herritarren borondatea" eta hori gauzatzeko "prozesu demokratikoa" zera galdetuz: "Ba al dago zerbait demokratikoagorik herriari hitza ematea baino, askatasunez bere etorkizuna erabaki dezan? Horixe izan

da betidanik ezker abertzalearen eta ETaren eskaera". Goraipatu egin zituen gainera epailearen aurreko mintzaldian gatazka konpontzeko azken hilabeteotan nazioarteko eta Euskal Herriko hainbat lagun egiten ari diren lana eta ETak eskaini duen su etena.

Haizea alde

Pellok, asteartean, epaiketako azken egunean hainbat adierazpen egin zituen epailearen aurrean: "Espainiak eta Frantziak nahi badute estatu demokratiko gisa ezagutuak izateko, bederen euskal jendartearen aldetik, badakite zer egin. Bazter dezatela errepresio estrategia, onar ditzatela Euskal Herria nazio gisa, bere lurraldetasuna eta etorkizuna askatasunez erabakitzeko euskal herritarrei dagokien eskubidea. Historiaren haizeak horren alde ufa egiten du, eta berandu baino lehen, gizon eta emakume askez osatutako Euskal Estatu Independentea nazio askez osatutako nazioarteko komunitatearen parte izango da".



Eskisabelek sei urte eman ditu Parisen preso. Asteartean 17 urteko zigorra ezarri zioten.

Pello Eskisabel-ek epaileari esandakoak www.txintxarri.info webgunean osorik

Pellok epaileari esan zion epaiketak irau duen bi astetan argi ikusi dutela auziak ezaugarri politikoak dituela, Euskal Herriaren gehiengoak España eta Frantziak darabilten asimi-

lazio prozesuaren aurka erresistentzia jartzen duela eta best hamarkadataro borroka horren ondorio dela auzia.

Epaileari gogorarazi zion hurrengo urtean, 2012an, beteko direla 500 urte nafar estatua desagertu zenetik, Euskal Herria burujabetasuna, lurraldetasuna eta etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen ari dela eta 1948an NBE sortu zenetik nazioen kopurua lau-koiztu egin dela.

Europako estatu berriak

Epaiketaren azken eguneko hitzaldi luzean, European azken hamarkadatan sortu diren Estatu berria aipatu zituen Pello Eskisabelek adibide gisara eta epaileari jakinarazi zion Estatu gabeko nazio baten independentziaren aldarrikapenak nazioarteko legedirik ez duela urratzen argi eta garbi adierazten dutela kasu horietan Hagako Nazioarteko Auzitegiak hartutako epaiek.

ETAko zuzendaritzako kide izatea egotzita, Parisko Auzitegiak hamazazpi urteko espetxe zigorra ezarri dio Pello Eskisabelek preso lasarteoriarrari eta zortzi urtekoa Manu Ugarte-mendia errenteriarri. Frantziako Polizia 2005ean atxilotu zituen biak, Okzitaniako Cassade herrian, eta ordutik preso egon dira, beraz sei urte bete dituzte jadanik. Eskisabelek 17 urteko zigorraren bi heren bete beharko ditu gutxienez Frantziaren eta ondoren bertatik kanporatu egingo dute. •

Bizi arteko zigorraren gaitzespen zabala

Ostiralean 19:30etan manifestazioak hiru herritar 25 urtean preso dauzkatela salatuko du

Lasarte-Oriako sei preso politikok 20 urte baino gehiago daramate espetxean eta horietatik lauk -Ina Orotegi, Mixel Turrientes, Niko Francisco eta Kepa Rezabalek-, jada kalean beharko lukete euren senide eta lagun ustez, ezarritako espetxe zigorra jada "osorik" bete dutelako, baina auzitegi Gorenaren 2006ko 197. epaia dela eta, Parot dotrina delakoaren ondorioz, preso jarraitzen dute.

Horregatik presoaren aldeko taldeak proposamen bat aurkeztu du Udalean, herriko hainbat talderen babesarekin

eta ostiralean "Bizi Arteko Kartzelarik Ez" leloarekin 19:30etan egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute.

Bizi arteko zigorra

Udalean Lasarte-Oriako preso politikoen aldeko proposamena aurkeztu duen taldearen ustez, Gorenak hartutako jokabide eta epaiaren ondorioz, bizi arteko kartzela zigorra ezarri zaie presoek. "Kondenak oso osorik bete osten kaleratzearen zeuden gure senideak preso mantentzeko helburuarekin". Euren iritziz, zigorrak betetzeko modua eta hau

murrizteko aukera aldatu zuen Auzitegi Gorenak 197/2006 epaiarekin, horrek argi erakusten du jardura juridikoa erretaxarako erabiltzen dela eta aldi berean uste dute erabaki hau Espainiako Konstituzioaren eta Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren kontrakoa dela.

Beraz Udalarri eskatzen diote bat egin dezala Auzitegi Gorenaren 197/2006 epaia bertan behera uzteko eta zigorra bete duten lau preso hauek kaleratzeko eskaerarekin, elkartasuna adierazi senideei eta apirilaren 15ean manifestazioa bultzatu.

Konkretuki, Udalarri lau punturen onarpena proposatzen zaio: batetik Espainiako Auzitegi Gorenari eskaera egiteko 197/2006 sententzia bertan behera utzi dezan eta bestetik Udalak adierazi dezala Orotegi, Turrientes, Francisco eta Rezabal herriko presoak kaleratzearekin adostasuna.

Manifestazioarekin bat

Gainera hirugarren puntuan espetxe politikak prosoen senideengan dakarren zigorgaithegia dela eta, senide hauei elkartasuna adierazteko eskatzen zaio udalari eta laugarrenean bat egin dezala

apirilaren 15ean zigorra bete duten preso hauen kaleratzearen alde deitutako manifestazioarekin.

Ostiralean 19:30etan hasita burutuko den manifestazio honekin bat egin dute Ezker Abertzaleak, Hamaikak Batek eta Ezker Batuak Udalean dituzten ordezkariak, EAK, LABek eta herriko beste hainbat elkarteak, besteak beste, Multi-musikalak, Xirimirik, Sorgin Jaiak, Marasmak, Bertso Eskolak, Etxarat-ek, Gazte Independentistek, Pirritx eta Porrotx pailazoek, Sahara herriaren aldeko Ekimenak eta AEKren Munterri euskaltgiak. •

Egunero

Erakusketa

BI LEIHO argazki erakusketa ikusgai. Lanak Mikel Olaiz eta Naike Zumeta herritarrenak dira. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar



Erakusketa

ESTUDIO DEL PINTOR AKADEMIAKO IKASLEEN ERAKUSKETA ikusgai, Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara

Asteartea, 12

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "JOSTATUZ IKASTEA", Fermin Korkostegiren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan



The Doors taldeari buruzko dokumentala ikusgai

WHEN YOU'RE STRANGE film dokumentala Okendo Zinema Taldearen eskutik. Tom DiCillok taldeari buruzko dokumentala egin du, eta artxibo zahar batetik ateratako irudiekin.

Jim Morrisonen eta Ray Manzarek teklatu jotzaileak UCLA zinema eskolan elkar ezagutu zuten, eta garai horietatik abeslaria Parisko hotel batean hilik aurkitu zuten arteko bidea erakusten du filmak.

OSTEGUNA, APIRILAREN 14A
MANUEL LEKUONA KULTURETXEA, 21:30EAN
SARRERA, 4,20 EURO
JATORRIZKO BERTSIOA, GAZTELANIAZ SUBTITULATUA

Ostirala, 15

Bakarrizketa

Xpression eta Udalak hitzartuta dituzten Gazte kontzertuen barruan, RUBEN ARROSPIDEK BAKARRIZKETAK eskainiko ditu. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

GAZTELANIAZ



Antzerkia

Telebistako VAYA SEMANITA programako sketchak antzerkian ikusi ahaliko dira. Sarrera, 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:30ean.

GAZTELANIAZ



Asteazkena, 28

Zinea

EL GRAN VAZQUEZ filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, GAZTELANIAZ

17. Korrika

Osteguna, 14

15:00etan, KORRIKA TXIKIA, Zumaburutik aterako da.

Ostirala, 15

22:30ean, IRUN ETA LASARTE-ORIA BERTSO-DESAFIOA, Jalgi kafe-antzekian.

Larunbata, 16

11:30ean, HAURREN OLINPIADAK, Andatza plazan.

12:00etan, AMALUR TRIKITIXA ETA PANDERO TALDEKOAK kaleak giroten.

12:00etan, tabernaz taberna, XUMELA ETA ALBOKAKO kideak.

13:00etatik 14:00etara, KUKUKA ANTZERKI ETA DANTZA ESKOLAKO talde batek KALE ANIMAZIOA.

14:00etan, BABARRUN JANA, Andatza plazan.

16:00etatik aurrera, BERTSOLARIAK eta MIKEL BERMEJOREN bakarrizketa, Andatza plazan.

18:00etan, Kukukako dantzako kideek KALEJIRA.

18:00etan, ERROMERIA Sagardotegi kalean.

22:30ean, BAKARRIZKETAK, Jalgi kafe-antzekian.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Korrika 17ko arropa salgai

Korrika 17aren arropa, kami-setak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua.

Materiala Urruzola merterian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldioaren amaiera arte.

Udalekuan begirale izateko aukera

Ttakunek Udalaren laguntza antolatzen dituen Txokoak egitasmoan edo Mendi-gorrian eta Kanpaldietan begirale izateko aukera dute nahi duten gazteek. Udalekuak uztailean eta abuztuan izango dira.

Interesa dutenek zenbait bide dituzte izena emateko: mezu bat bidali dezakete aisia@ttakun.com helbidera

edo Ttakuneko bulegotik, Geltoki kale 4 zenbakitik, pasa daitezke.

Hautesle-zerrendak ikusgai udaletxean

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazten du, apirilaren 4a eta 11ren artean, biak barne, udaletxean kontsultatu ahal izango direla hautesle-zerrendak.

Horiek izango dira datozen maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetarako erabiliko direnak.

Interesatuak udaletxean dagoen informazioa bulegora joan beharko du 9:00etatik 13:30era.

Marrakiz eta margo eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrakiz eta margo eskolan izena emateko aukera

zabalik dago, oraindik plazak badaude, alegia.

Eskolak asteazkenetan eta ostialetan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira.

Interesa dutenek kulturetxeko 2. solairura jo behar dute.

Erretiratuen bidaia Benidorrera

Biyak Bat elkarteak bazkide guztientzako antolatuko dute 15 eguneko bidaia Benidorrera.

Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidormeko Cristal Park ize-neko hotelean hartuko dute ostatu.

Norbaitek interesarik badu edo informazio gehiago nahiko balu, Biyak Bat elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa behar du.

Lourdesera bidaia maiatzaren 8an

Maria Auxiliadora elkarteak, ohitura denez, Lourdesera txangoa antolatuko du. Bidaia maiatzaren 8an izango da.

Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 363 675 edo 943 360 042 telefono zenbakietara.

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da apirilaren 14an, ostegunean, arratsaldeko 17:00etan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzue zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzte; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezu txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Korrikan parte hartuko dutenek euren kilometroa egiteko petoak eta zenbakiak jaso zituzten ostiralean.



Dotore eraman eta erakutsi zituzten korrikarako prestatu dituzten arropak.

Korrika, 17an goizean goiz pasatuko da Lasarte-Oriatik

Ostiralean aurkezpen dotorea egin zen Kultur Etxean

Korrika 17ren aurkezpen dotorea egin zuten aurreko ostiralean Muntteri euskaltegiak antolatuta Kultur Etxean. Arratsaldeko 20:00etan hasita, duela bi urteko korrika eta korrika txikiaren bideoak eskaini ziren eta txalaparta, bertso, kantu, antzerki, modeloen erakustaldi, ... denetarik izan zen Mainer Segurola irratiko esatariak aurkeztu zuen ekitaldian.

Euskalakari ugari igo zen oholtzara astean zehar burutuko diren hainbat ekitaldi aurkezteko. Txalapartaren ondoren, Andoni Otamendik hiru bertso kantatu zituen besteak beste "korri dezagun, Trebiñotik Donostira", "Kale ertzean, bada ederki eta korrika hobeto" eta aurtengo korrikaren leloa erabiliz, "maitatu ikasi ari, ni ere euskalakari, bihotzarekin bira emango diogu Euskal Herriari".

la bete egin zen Kultur Etxeko aretoa, eta ekitaldian izan ziren Txanpi Baztarrika, Estitxu Alkorta, Ana Isabel

Prieto eta Ricardo Ortega zinegotziak.

Duela bi urteko korrikako bideoen artean, Kukukako solaskideek Alex Telloren laguntzaz prestatutako antzerkia eskaini zuten. 16. korrikari buruz prestatu zuten bideoa ikusgarria izan zen, eta ondoren Olatz Urdanpilletak aurten Korrikak Euskaltzaindiak eskara bultzatzeko egindako lana omenduko duela azaldu zuen, bereziki hil berri den Xabier Gereño euskaltzaina gogoratuz eta agurra dantzatu zioten.

Xumela abesbatzak bi abesti eskaini ondoren iritsi zen ekitaldiko momenturik bereziena. modeloen erakustaldiarekin. Euskaltegiko ikasle eta herriko gazteek AEK salgai jarri dituen Korrika arropa ezberdinen erakustaldia egin zuten. Modelo amateurak ikusleen artean atera eta euren itzulia egin zuten oholtzara gainean.

Bukaeran Lasarte-Orian igandean lekukoa hartuko duten elkarte eta taldeetako ordezkariak petoa jaso zuten,


besteak beste, LAB, Ostadar, Sorgin Jaiak, elkarte gastronomikoak, jangelak, Udala, ikastetxeak, Argia, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Kukuka, Zabaleta auzoa, Landaberriko gurasoak, Muntteri, Erketz eta Ezker abertzalea Gose taldeak Korrikarentzat egindako bideo klipak eman zion amaiera ekitaldiari.

Egitarau zabala

Korrika datorren igandean goizeko 7:30etan pasatuko da Lasarte Oriatik baina aste gutxian zehar nabaritu da Euskal Herrian barrena dabilela. Larunbatean, Baginaren Bakarriketa antzezlan eskaini zen, ostegunean 15:30etan pasatuko da Korrika txikia, ostiral gauean bertso desafioa egingo da Jalgin, larunbatean, haur jolasak, kalean giroa Amalur, Xumela, Alboka eta Kukukarekin, babarrun jana, bertsolari, bakarriketa, dantza eta erromeria, eta igandean korrika pasa ondoren txokolata banatuko da (egitarau osoa 7. orrialdean). •



Andoni Otamendik hasi zuen bertsoz aurkezpen ekitaldia.



Baginaren Bakarriketa.- Larunbatean, barrez lehertu ziren Kultur Etxean Txalo konpainiaren Baginaren Bakarriketa antzezlan ikusten egon ziren 360 lagunak.

aste santuko

txoko

olinpiadak

2011

apirilaren 18-19-20 + 26-27-28-29-30

9:00etik 13:30etara martxan

2tik 8 urte bitarteko haurrak hartuko dira (2002tik 2008ra bitartean jaiotakoak)

Matrikulatzeko epea: apirilaren 14

amarau

Ludoteka

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com